

Esistentzialismoa eta Unamuno

El Correo, 1976-06-08.

Badira berez, barrutik eta bereziki euskal gaiak direnak; baina badira orokorretik gure herria ikuitzen duten gaiak diranez, gure kulturakoak direnak ere.

Hau bat.

Gero, bada esistentzialismoa erakusten duten euskal idazlerik antzerki eta olerkietan; eta beste aldetik, Unamuno, zer nahi dela, gure herriko gizona da, eta hontan interpretazioak arrotzen buruetan bakarrik uztea ez da inorentzat onuragarri: batez ere guretzat.

Esistentzialismoa, *izateko*, gizona izateko, bide baten Filosofia da.

Esistentzialismoaren berezitasuna: Jainkoaren ezaguera arrazoizkoa ukatzen du, eta sentikerari bideak irekitzen dizkio. Hala, Filosofi bidean, Jainkoa urrutiratzen du eta gizona hurbiltzen.

Filosofi hontan, gizona da ardatz.

Eta Esistentzialismo motak, gizon-izenak dituzte: Kierkegaard, Jaspers, Marcel, Heidegger eta Sartre.

Esistentzialismoa Unamuno-rekin lotzen duten puntuak bi dira: *eriotza* eta *nobela*. Eriotza esistentzialismoaren bidetik, Kierkegaard-ek erabili zuen lehendabizi, noski: baina esistentzialismoa nobela bidez agertzeko lanetan, Unamuno izan zen aintzindari Europan.

Esistentzialista gehienak bezala, biografiak garrantzi aundia du Unamuno-n ere. Honenak erakusten du zerbait: nondik nora bili zenak, nolatan jantzi zenak, eta izakerez eta bere idaz-lanetatik nondik ibili zenak ere. Hoiek denak, 98.go belaundikoan beran izan ziren: berrizaleak; baina denak espainiarrak. Garai berean, Sabino Arana espetxean zegoen, Aberri berri baten eraginaren bila zebilelako: Maeztu bat, Baroja bat, Unamuno bat, Espainia-ri berritze bat eman nahiean zebiltzen bitartean.

Filosofi bide batzuk ireki zituen Unamuno-k, baina Filosofo bat ahal da?

Urrats batzuk egin zituen Esistentzialismoa bidean, baina sistema faltatu zitzaion, kultura filosofikoa ere bai eta ez zen Unamuno filosofo bat izatera iritsi. 1898go belaunaldiko pertsonaje aundiena izan zen noski eta pentsalari nagusia ere bai. Belaunaldi hau Espainia-k izan duen garaia izan denez, gure herriko gizon bat izan zen buru.

Aztertu behar dugu euskaldunok zergatik.

Esistentzialismoaren bideko nobelak idatzi zituen Unamuno-k bereziki, baina ez zen nobelagile ona izan. Hala ere, hontan aurrelari izateak ematen dio garrantzi bat. Nobela ("nivola" deitzen dio) hau, eriotz-bidea sumatzeko asmotan idatzi zuen: *San Manuel bueno, mártir* ("Cómo se escribe una novela"). Hemen, Jainkoa-ren papera hartzen du Unamuno berak, eta ez du bide errazarik arkitzen.

Badira esistentzialistak eriotza ikusteko bi bide: kristauarena eta humanistarena. Nondik ibili zen Unamuno? Kristauak badu munduaren amaitze honen ondorengo itxaropen bat, eta humanistarentzat eriotzean amaitzen da dena. Unamuno tartean geratzen da: aurtzaroko zerbait geratzen zaio, ari bat bezala, baina ez du egitazko federik arkitzen. Hau da Unamunoren hil-zoria, *agonia*.